


ISEI – IVEI

Rs5. ESKOLA UZTE GOIZTIARRA





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



Edizioa: 2015ko otsaila

© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

Inmaculada Tambo

José Ramón Ugarriza

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^a Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Sarrera	4
Rs5.1 taula eta grafikoa: Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.	6
Rs5.2 taula eta grafikoa: Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.	7
Rs5.3 taula eta grafikoa: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2014. urtea.	8
Rs5.4 taula eta grafikoa: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean.	9
Rs5.4.1 grafikoa: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean. 2007 eta 2014 urteak.	10
Rs5.5 taula eta grafikoa: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera Europar Batasunean. 2014. urtea.	11
Rs5.6 taula eta grafikoa: Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan. EUSTAT, (Biztanleriaren Jardueraren Arabera Sailkatzeko inkestatik ateratako datuak – BJA).	12



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



ESKOLA UZTEAREN EHUNEKOIA IKASKETA MAILARIK ALTUENA DBHKO TITULUA (HNSN 2)¹ DUEN ETA ONDORENGO HEZKUNTZARIK EDO PRESTAKUNTZARIK² JASOTZEN EZ DUEN 18-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN ARTEAN.

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarraren ehunekoak % 10 baino txikiagoa izan behar du.

Eskola uzte goiztiarraren tasa betidanik izan da oinarrizko kezka bat Europako hezkuntza-politikan, prestakuntza ezagutzan oinarritutako hazkunde ekonomikoaren eredu bat lortzeko ezinbesteko elementua delako, eredu horrekin garapen jasangarria eta gizarte kohesioa bermatzen direlarik.

Europako Kontseiluak 2003an eskola uzte goiztiarraren tasa 2010. urterako % 10 baino txikiagoa izatea erreferentzia-puntutzat hartu zuen, europar hezkuntza eta prestakuntza sistemen aurrerapena kontrolatzeko. Helburua betetzeko zailtasuna kontuan izanik, helburua 2020rako berdin mantendu da.

Eskola uzte goiztiarraren murrizpena 2020. urterako neurtzeko, batzordeak xedatu zuen 18-24 urte bitarteko gazteei galdetu ziezaieten zein zen euren ikasketa edo prestakuntza mailarik altuena eta datu-bilketaren aurreko lau asteetan –Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA) Espainiaren kasuan eta European Labour Force Survey (ELFS) Europar Batasunaren kasuan– ea mota bateko edo besteko hezkuntzarik edo prestakuntzarik jaso zuten ala ez. Helburua, azken finean, adin tarte horretako gazteek euren prestakuntza –arautua (derrigorrezkoaren ondorengoa) edo hezkuntza sistemaz kanpoko beste edozein motatako prestakuntza– jarraitzea sustatzea da, eta , aldi berean, biztanleriaren parte bat ezagutzaren gizartetik at geratzea eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskua ekiditea.

Azken urteotan adierazle honek zenbait aldaketa izan ditu bere definizioan eta metodologian. Gaur egun EUROSTATEk erabiltzen duen metodologia erabiltzen da eta kontuan hartzen den datua 4 hiru hilekoetako ehunekoaren batez bestekoa da. Adierazle honekin batera aurkezten diren segida guztiak EPA-2005 metodologiarekin birkalkulatu dira.

Adierazle honen bilakaerak, batez beste, beheranzko joera du Europako herrialdeetan. 2004. urtetik (% 16,0) 2013. urtera (% 12,0) eskola uzte goiztiarraren datua 4 puntu jaitsi da. Horrela jarraituz gero, 2020. urterako Europar Batasuneko herrialdeetako batez besterako finkatu den helburua lortuko dela espero daiteke, eta horrek esan nahi du herrialde bakoitzean hartu diren neurriak egokiak izan direla.

2014. urtean Europako 28 herrialdeetako hemeretzik helburua lortua zuten edo lortzeko zorian zeuden, Espainia (% 21,9), Malta (% 20,4) eta Rumania (% 18,1) dira helburutik urrutien dauden herrialdeak. Kroazia (% 2,7), Eslovenia (% 4,4) eta Txekiar Errepublika (% 5,5) dira eskola uzte goiztiarraren ehunekorik apalena duten herrialdeak. 2007-2014 aldian, ehunekoia gehien jaitsi deneko herrialdeak Portugal (19,1 puntu), Malta (9,8 puntu) y Espainia (8,9 puntu) izan dira.

¹ Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN). (ISCED ingelesez; CINE gaztelaniaz)

² Prestakuntzatzat edozein motako ikaskuntzari lotutako jarduera guztiak hartzen dira, arautuak eta ez-arautuak.



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Euskadin, 2005-2009 aldian eskola uzte goiztiarraren ehunekoa % 14,7 eta % 16,6 bitartean ibili da, nahiko egonkor. 2009tik 2014ra datua 7,2 puntu jaitsi da. Euskadi 2004. urtetik 2014. urtera, beti egon da Europar Batasuneko 28 herrialdeetako batez bestekoaren azpitik edo oso hurbil, 2009. urtean izan ezik (2,4 puntu).

Espanian, 2008tik aurrera eskola uzte goiztiarraren ehunekoan etengabeko jaitsiera izan da, % 31,7tik 2014ko % 21,9era jaitsi delarik. 2007-2014 aldian eskola uzte goiztiarraren ehunekoa autonomia erkidego guztietan eta Ceuta eta Melilla hirietan jaitsi zen. Ehunekoaren jaitsierarik handienak Melillan (27,2 puntu), Ceutan (19,6 puntu), Kantabrian (15,8 puntu) eta Murtzian (15,1 puntu) izan dira.

2014. urtean, 18 eta 24 urte bitarteko ikasleen artean eskola uzte goiztiarraren ehunekorik txikiena izan duen erkidegoa Euskadi (% 9,4) izan da, eta gero Kantabria (% 9,7) eta Nafarroa (% 11,8). Ehunekorik altuena izan duten erkidegoak Balear Uharteak (% 33,1), Ceuta (% 29,5), Andaluzia (% 27,7) eta Murtzia (%24,1) izan dira.

Sexuaren aldagaiak ere oso datu argigarriak eskaintzen ditu. 2014an eskola uzte goiztiarraren ehunekoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino handiagoa izan da herrialde guztietan, Bulgarian (0,1 puntu) izan ezik, eskola uzte goiztiarraren ehunekoa emakumezkoen artean altuagoak baitira). Bi sexuen ehunekoaren arteko alderik handienak Zipren (8,3 puntu), Estonian (7,8 puntu) eta Letonian eta Portugalen, bietan (6,6 puntu) izan dira.

Euskadiren kasuan, 2000-2009 aldian eskola uzte goiztiarraren ehunekoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino 9,6 puntu altuagoa izan zen. Hala ere, 2014an diferentzia hori 4,8 puntura murriztu zen. Autonomia erkidegoetan 2014an sexuaren aldetiko diferentzia Aragoiko 0,4 puntutik Ceutako 17 puntutara bitartean ibili da. Mutilek neskek baino hein handiagoan utzi dituzte ikasketak goizegi kasu guztietan, Aragoian (0,4 puntu) izan ezik, hor neskek eta mutilek bezainbeste dabilta ikasketak goizegi uzteko orduan.




Rs5.1 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan³.

ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA, EUSKADIN

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	14,7	19,8	9,5	10,3
2001	14,7	20,1	9,0	11,1
2002	13,4	17,3	9,3	8,0
2003	15,9	20,5	11,0	9,5
2004	13,8	18,7	8,5	10,2
2005	14,7	19,2	9,9	9,3
2006	14,6	20,3	8,7	11,6
2007	14,3	18,7	9,8	8,9
2008	14,8	18,1	11,3	6,8
2009	16,6	21,7	11,5	10,2
2010	13,1	13,7	12,6	1,1
2011	13,8	14,2	13,4	0,8
2012	12,4	13,0	11,8	1,2
2013	9,9	12,4	7,3	5,1
2014	9,4	11,8	7	4,8

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: EUROSTAT. (EPA-LFS)- (Europar Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Datuak urteko batez bestekoa dira.

³ Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errete handia izan dezakete.




Rs5.2 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Espainia	29,1	29,7	30,9	31,7	32,2	31,0	30,3	30,8	31,7	30,9	28,2	26,3	24,7	23,6	21,9
Galizia	29,2	27,5	27,3	25,0	24,3	22,9	24,5	23,5	23,6	25,8	22,8	20,4	22,7	20,2	18,5
Asturias	21,8	19,8	22,9	29,3	26,9	20,5	23,1	23,1	20,0	21,3	22,2	21,9	19,8	19,1	13,6
Kantabria	22,8	24,2	26,5	28,9	26,7	21,9	23,5	25,5	22,9	24,2	23,9	21,4	14,2	12,1	9,7
Euskadi	14,7	14,7	13,4	15,9	13,8	14,7	14,6	14,3	14,8	16,6	13,1	13,8	12,4	9,9	9,4
Nafarroa	16,4	17,9	21,8	21,0	21,0	17,9	13,0	16,3	18,8	18,7	16,8	12,0	13,0	12,9	11,8
Errioxa	26,1	27,0	28,0	35,1	36,3	29,7	26,6	30,6	37,0	31,9	27,2	30,6	24,3	21,7	21,1
Aragoi	21,9	20,8	27,3	23,6	23,8	23,4	24,6	25,5	25,8	25,0	23,8	22,8	20,4	18,9	18,4
Madril Erk.	19,6	20,8	24,3	23,0	25,6	26,4	25,8	25,8	27,1	26,2	22,3	19,5	21,5	19,7	18,3
Gaztela eta Leon	21,6	22,9	22,9	24,0	23,3	25,4	23,6	23,7	26,4	26,9	23,4	27,5	21,7	19,2	16,8
Gaztela-Mantxa	35,8	36,4	36,7	36,3	37,4	36,8	38,8	37,3	38,4	34,6	33,4	31,5	27,5	27,4	22,2
Extremadura	41,0	37,9	38,1	36,3	39,2	36,8	35,8	34,4	33,8	34,1	31,6	30,1	32,6	29,2	22,9
Katalunia	29,1	30,1	31,3	34,3	34,1	33,1	28,5	31,2	32,9	31,9	28,9	26,2	24,2	24,7	22,2
Valentziako Erk.	32,7	35,8	36,0	35,8	35,7	32,2	31,1	31,2	32,6	31,9	28,4	26,7	25,9	21,7	23,4
Balear Uharteak	42,0	40,7	39,9	41,4	42,2	39,7	36,0	42,1	42,5	40,3	36,5	29,7	28,9	29,8	32,1
Andaluzia	35,5	35,3	37,0	38,4	39,4	38,0	38,0	37,1	37,9	37,2	34,6	32,1	28,8	28,7	27,7
Murtzia	39,2	37,7	39,4	42,8	43,6	39,8	38,6	39,2	40,6	36,8	34,9	30,3	26,9	26,3	24,1
Ceuta	38,5	36,8	43,5	46,0	41,9	55,2	54,9	49,1	42,7	34,1	45,8	38,9	38,5	33,5	29,5
Melilla	36,5	26,6	28,0	34,7	40,8	33,5	40,3	46,8	35,5	36,7	35,4	19,3	32,6	33,1	19,6
Kanariak	34,1	36,9	33,6	33,1	33,3	30,8	34,9	36,4	34,1	30,7	29,8	30,9	28,0	27,5	23,8

Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienera ordenatua, "2014. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (EPA-LFS)- (Europar Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Datuak urteko batez bestekoa dira.




Rs5.3 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehuneko sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2014. urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Espainia	23,6	27,2	19,8	7,4
Galizia	20,2	24,9	15,1	9,8
Asturias	19,1	21,6	16,3	5,3
Kantabria	12,1	13,6	10,6	3,0
Euskadi	9,9	12,4	7,3	5,1
Nafarroa	12,9	13,9	11,8	2,1
Errioxa	21,7	24,8	18,4	6,4
Aragoi	18,9	17,5	20,4	-2,9
Madril Erk.	19,7	20,5	19,0	1,5
Gaztela eta Leon	19,2	25,4	12,7	12,7
Gaztela-Mantxa	27,4	32,2	22,3	9,9
Extremadura	29,2	36,3	21,5	14,8
Katalunia	24,7	30,5	18,6	11,9
Valentziako Erk.	21,7	26,2	17,0	9,2
Balear Uharteak	29,8	33,6	25,8	7,8
Andaluzia	28,7	31,9	25,5	6,4
Murtzia	26,3	30,6	21,8	8,8
Ceuta	33,5	35,9	30,9	5,0
Melilla	33,1	30,7	35,5	-4,8
Kanariak	27,5	29,8	25,1	4,7

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehuneko emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienara ordenatua, "Guztira" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (EPA-LFS)- (Europar Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Datuak urteko batez bestekoa dira.




Rs5.4 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean.

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
EB (28 herrialde)	16,0	15,7	15,3	14,9	14,7	14,2	13,9	13,4	12,7	12,0	11,1
EB (27 herrialde)	16,1	15,8	15,4	15,0	14,8	14,3	14,0	13,5	12,8	12,0	11,2
EB (15 herrialde)	17,7	17,5	17,2	16,8	16,5	15,8	15,3	14,7	13,7	12,8	11,7
Belgika	13,1 b	12,9	12,6	12,1	12,0	11,1	11,9	12,3	12,0	11,0	9,8
Bulgaria	21,4	20,4	17,3	14,9	14,8	14,7	13,9	11,8	12,5	12,5	12,9
Txekiar Errepublika	6,3	6,2	5,1	5,2	5,6	5,4	4,9	4,9	5,5	5,4	5,5
Danimarka	8,8	8,7	9,1	12,9 b	12,5	11,3	11,0	9,6	9,1	8,0	7,7
Alemania	12,1	13,5 b	13,7	12,5	11,8	11,1	11,9	11,7	10,6	9,9	9,5
Estonia	13,9	14,0	13,4	14,4	14,0	13,5	11,0	10,6	10,3	9,7	11,4
Irlanda	13,1	12,5	12,1	11,6	11,3	11,7	11,5	10,8	9,7	8,4	6,9
Grezia	14,7	13,6	15,1	14,3	14,4	14,2	13,5	12,9	11,3	10,1	9,0
Espania	32,2	31,0 b	30,3	30,8	31,7	30,9	28,2	26,3	24,7	23,6	21,9
Euskadi	13,8	14,7 b	14,6	14,3	14,8	16,6	13,1	13,8	12,4	9,9	9,4
Frantzia	12,1	12,2	12,4	12,6	11,5	12,2	12,5	11,9	11,5	9,7	8,5
Kroazia	5,4 u	5,1 u	4,7 u	3,9	3,7	3,9	3,7	4,1	4,2	4,5	2,7
Italia	22,9	22,3	20,6	19,7	19,7	19,2	18,8	18,2	17,6	17,0	15,0
Zipre	20,6	18,2 b	14,9	12,5	13,7	11,7	12,7	11,3	11,4	9,1	6,8
Letonia	14,7	14,4	14,8	15,6	15,5	14,3	12,9	11,6 b	10,6	9,8	8,5
Lituania	10,3 b	8,4	8,8	7,8	7,5	8,7	7,9	7,4	6,5	6,3	5,9
Luxenburgo	12,7	13,3	14,0	12,5	13,4	7,7 b	7,1	6,2	8,1	6,1	6,1
Hungaria	12,6	12,5	12,6	11,4	11,7	11,2	10,5	11,2	11,5	11,8	11,4
Malta	42,1 p	33,0 b	32,2	30,2	27,2	27,1	23,8	22,7	21,1	20,8	20,4
Herbehere	14,1	13,5	12,6	11,7	11,4	10,9	10,0 b	9,1	8,8	9,2	8,6
Austria	9,5 d	9,1	9,8	10,7	10,1	8,7	8,3	8,3	7,6	7,3	7,0
Polonia	5,6 b	5,3	5,4	5,0	5,0	5,3	5,4	5,6	5,7	5,6	5,4
Portugal	39,3 b	38,3	38,5	36,5	34,9	30,9	28,3	23,0	20,5	18,9	17,4
Errumania	22,4 b	19,6	17,9	17,3	15,9	16,6	18,4	17,5	17,4	17,3	18,1
Eslovenia	4,3	4,9	5,6	4,1	5,1	5,3	5,0	4,2	4,4	3,9	4,4
Eslovakia	6,8	6,3	6,6	6,5	6,0	4,9	4,7	5,1	5,3	6,4	6,7
Finlandia	10,0	10,3	9,7	9,1	9,8	9,9	10,3 d	9,8	8,9	9,3	9,5
Suedia	9,2 d	10,8 d	8,6 b	8,0	7,9	7,0	6,5	6,6	7,5	7,1	6,7
Erresuma Batua	12,1	11,6	11,3	16,6 b	17,0	15,7	14,9	15,0	13,6	12,4	11,8

(b) Segidaren haustura. (d) Definizioa bat ez dator, metadatuak ikusi. (p) Behin-behineko datua. (u) Konparagarritasun urriko datua.




Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak). Datuak urteko batez bestekoa dira.



Rs5.4.1 grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean. 2007. eta 2014. urteak.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienera ordenatua, "2013. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak). Datuak urteko batez bestekoa dira.




Rs5.5 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera Europar Batasunean. 2014. urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (28 herrialde)	11,1	12,7	9,5	3,2
EB (27 herrialde)	11,2	12,8	9,6	3,2
EB (15 herrialde)	11,7	13,3	10,1	3,2
Belgika	9,8	11,8	7,7	4,1
Bulgaria	12,9	12,8	12,9	-0,1
Txekiar Errepublika	5,5	5,8	5,2	0,6
Danimarka	7,7	9,3	6,0	3,3
Alemania	9,5	10,0	8,9	1,1
Estonia	11,4	15,3	7,5	7,8
Irlanda	6,9	8,0	5,7	2,3
Grezia	9,0	11,5	6,6	4,9
Espainia	21,9	25,6	18,1	7,5
Euskadi	9,4	11,8	7,0	4,8
Frantzia	8,5	9,5	7,4	2,1
Kroazia	2,7	3,1	2,3	0,8
Italia	15,0	17,7	12,2	5,5
Zipre	6,8	11,2	2,9	8,3
Letonia	8,5	11,7	5,1	6,6
Lituania	5,9	7,0	4,6	2,4
Luxenburgo	6,1	8,3	3,7	4,6
Hungaria	11,4	12,5	10,3	2,2
Malta	20,4	22,3	18,3	4,0
Herbehere	8,6	10,3	6,8	3,5
Austria	7,0	7,6	6,5	1,1
Polonia	5,4	7,3	3,3	4,0
Portugal	17,4	20,7	14,1	6,6
Errumania	18,1	19,5	16,7	2,8
Eslovenia	4,4	6,0	2,7	3,3
Eslovakia	6,7	6,9	6,6	0,3
Finlandia	9,5	11,9	7,2	4,7
Suedia	6,7	7,3	6,0	1,3
Erresuma Batua	11,8	12,8	10,7	2,1

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienara ordenatua, "Guztira" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak). Datuak urteko batez bestekoa dira.



Rs5.6 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

(EUSTAT) Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak, Eurostat metodologiarekin (BJA) Biztanleriaren Jardueraren Arabera Saillatzeko inkestatik ateratakoak. Inkesta hiru hilabetez behin gauzatzen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta datuak hiruhilabeteetako datuetatik ateratako urteko batez bestekoa dira.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	14,3	18,1	10,3	7,8
2001	12,4	15,9	8,7	7,2
2002	13,4	16,7	9,9	6,8
2003	14,7	19,3	9,9	9,4
2004	14,2	18,9	9,1	9,8
2005	11,5	13,8	9,0	4,8
2006	12,0	15,0	8,5	6,5
2007	12,4	15,2	9,3	5,9
2008	14,1	16,8	11,1	5,7
2009	12,6	16,6	8,5	8,1
2010	10,8	12,7	9,0	3,7
2011	9,0	8,7	9,3	-0,6
2012	7,7	8,3	7,1	1,2
2013	8,0	8,2	7,9	0,3
2014	9,4	11,8	7	4,8

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.

